

ASTIALDIA > EUSKAL HERRIKO TXOKOAK

Kalbarioko kaperatik ikuspegi paregabea dago: Lapurdiko kostaren xarma ikus daiteke. CAIZKA ROZ

Biriatutik lau haizeetara

Lapurdiko herri txiki horretatik ibilbide bat baino gehiago abiatzen dira. Mendira buruz, oihanera buruz, Bidasoa ibaiak lastandurik, historiaren istorioek apaindurik.

XAN AIRE
Biriatu

Ez dira mendian ibiltzeko garai onenak. Urtarrileko haizeak ez dira beroenak, nehor ohartu gabe etortzen badaki euriak, eta elurrak noiznahi mehatxatzen du neguko egun gris horietan. Hala ere, natura sorta batek ez dio kalte egiten ez gorputzari, ez buruari. Lapurdiko tontorretan ibiltzeko garai polita da, eguraldi politarekin oraindik gehiago. Ez Larrunera, baina behereago, ibilbide laburragoak eskaintzen dituzten mendietan, minik egiten ez duten maldekin.

Biriatu, lau haizeetara goxoki airatzeko parada dago. Lapurdiko herri txiki horren bazterretan, mendiak eta oihanak daude, Bidasoa ibaiak lastandurik. Zelaiak mendi kaskoetan dira. Biriatuko xokotik hurbil daude autobidearen zarata, Txingudi badiaren joan-etorri etengabeak. Baina autobidearen azpitik pasatu, Biriatu-

ko norabidea hartu, herria pasatu, kasko-kaskora igo, aparkatu, eta autotik jaitsi: naturak du azken hitza. Herria bera bisitatzen ahal da, bertako ostatuetako mozkinak dastatzen ahal. Baina gorantzago joan, eta ikuskizunak gehiago bali.

Errazena, Kalbarioko tontorre-ra joatea da. Aparkalekuaren parean dagoen mendi mazelari segituz, untzien zulo txikiei jarraituz, eta batez ere bertan dagoen bidea hartuz, poliki-poliki igotzen hasten da. Bi aukera daude: zizelkatua den bidetik joatean, malda ez da zaila, baina denbora gehiago behar da. Bestela, mazela zuzenki hartzen ahal da: laburrago baina gogorrago. Udazkenean, iratze gorri eta larre ubelez janzten dira mendiaren mazelak... Goizean, argi hastean joan, eta imajinatu ikusgarria.

Urtarrilean, bazterrak ilunago dira. Baina Kalbarioko tontorrean dago ikuskizuna. Edo ikuspegia, hobeki erran. Ezker, Lapurdiko itsasbazterren xarmak, Zokoako gotorlekua, Donibane Lohizune, zuri-zuria, eguzkia hartzen, Miarrizteko faroa... Eskuin, Larrun mendia, zorrotz-zorrotza. Eta kaskoan, lehen istorioa. XVIII. mendea, Frantziako Iraultza garaian, kalbario bat, kapera bat eta ermita baten egonlekua txikituak izan ziren, 1793. urte inguruan. Harri meta bat baizik ez zen geratu. Duela hoge bat urte, ordea, kon-

ponketa lanak abiatu eta, kapera bat eta zurezko sei metroko gurutze bat eraiki zituzten, lauki formako harri pisuez inguratutik, abereez babesteko. Urruñarrek eta biriatuarrek oraindik ere prozesioak egiten dituzte Kalbariora.

Kalbarioko itzulia egin gabe, Xoldokogaina mendiaren norabidea dago. GR-10, Ozeano Atlantikoa eta Mediterraneoa batzen dituen bidearen hasiera. Baina, Pirinioak zeharkatu gabe ere, ibilaldi polita eskaintzen du Xoldokogainaren igoerak. Oihan txiki batetik pasatu, eta pixkanaka-pixkanaka hasi da malda gogortzen. Eta lehen pottokak agertu dira. Urtarrileko belar latzarekin egin behar dute neguko garai honetan.

PANORAMA PAREGABEA. Udareondoan Lepora iristean, Larrun mendia hautsi du zerumuga. Haratago, Osingo Lepoa, eta Aiako Harriak du zerua zizelkatu. Ordu laurden bat berantago, Xoldokogaina. Kas-koko harria, eta bere panorama paregabea. Eguraldi ederrarekin, Lapurdiko kostaldeko baino urrunago ikus daiteke, Landen puntaraino, eta lurraldearen bihurtune forma bitxia deskubritu. Lehen aipatutako mendiak ere hor daude, bai eta Txingudi, Donostialdea ere. Bidasoako ibar iluna ere agertu da. Biriatu, sekula baino txikiago.

Xoldokogainera igo gabe ere, ibilaldi lasaigoaren bidea zabal-tzen da, mendiaren erdian. Ibar-

dingo lepora eta bentetara eramaten duen bidea. Ihien lepota pasatu ondoan, Munhoara arribatzen da. Gizona aspalditik mazela eta zelaietan badabilela salatzen dute bertako megalitoek. Eta, Munhoa eta Oneaga tontorren artean, Xoldokogaineko aintzira dago. Urruñako eta Hendaiako zati baten ura hornitzen du aintzirak. Aintzira-ren inguruan gordetzen omen dira betizuak, ala betisoak, Lapurdin erratan den bezala. Lapurdiko behi basa bakarrak dira Xoldokogaineko mazelakoak. Bestalde, historia iluneko elezahar batek dio akelarreak antolatzen zituztela mendi horien artean ezkutaturik. Baina ez dute Larruneko ala Zugarramurdiko osperik sekula izan Biriatukoak.

Ibardingo bentetara joateko bideaz kanpo, Biriatuko oihan erraldoian sartzeko aukera ere badago, Bigarren Mundu Gerrako erresistentziako kideen aztarnetan segi joanez. Comete deitutako sarearen errepede bilakatuak ziren Xoldokogaineko inguruak. Florentino Goikotxeak hamaika iheslari, aliatuen hegazkinlari pasarazi zituen bertatik. Lizarlan baserriaren bazterretik, oihan erraldoian barna, Bidasoa zeharkatzeko. 1943. urteko abenduaren 24an, ordea, gaizki iragan zen operazio bat: Guardia zibilek tirokatu ondoan, ibaian ito ziren iheslariak, uraren indarrak eramanez.

Gaur egun, oihanean galtzeko

aukera dago oraindik, baina plaze-rez, haatik. Udan, berde-berdeak izaten dira bazterrak, eta ardi franko ikus daiteke. Udazkenean, bazterrak gorri-gorriak, eta usoak. Neguan, haritzak eta gaztainondoak biluzik. Orkatzak eta basurdeak ikusteko aukera gehiago.

ONDARE HAUSKORRA. Bestalde, oihana Biriatuko ondare garrantzitsua geratzen da, Lehen Mundu Gerran, ikatz erabiltzearentzat txikituak izan baitziren zuhaitzak. 1.103 hektarea dauzka orain basoak, zuhaitz mota anitzekin. Haritzak dira aipagarrienak, 200 hektarea, 1930eko eta 1940ko hamarkadetan landatuak. Herriko Etxeak, bi urte guziz, zozketa baten ondore, arbolak oparitzen ditu biztanle zortedunei, etxeko egurra egiteko. Gainera, bide anitzek zeharkatzen

Kalbarioko tontorrean, kapera bat eta sei metroko gurutze bat eraiki zituzten duela hoge bat urte

Xoldokogainetik, Landetako kostaldeko agertzen da, Donostialdea, baita Bidasoako ibarra ere

Bigarren Mundu Gerra garaian, erresistentziako kideek iheslariak mendi horietatik pasarazi zituzten